



## **Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak "Gauzen Interneta zure Enpresan" izenburupeko jardunaldia antolatu dute**

- *Jardunaldi hau "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamabigarren edizioan barneratzen da.*
- *Jardunaldia, teknologia honi euren negoziotan nolako probetxua atera diezaioketen jakin nahi duten enpresarie zuzendua dago.*
- *Hitzaldiak Miramongo Parke Teknologikoan egingo dira eta 200 pertsona baino gehiago bilduko dira bertan.*

**Donostia, 2014ko azaroak 3.** Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Miramon Enpresa Digitalak jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute **"Gauzen Interneta zure Enpresan"** izenburupean. Jardunaldia azaroaren 4ean, asteartean, egingo da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamabigarren edizioan barneratzen da eta teknologia honi euren negoziotan nolako probetxua atera diezaioketen jakin nahi duten profesionaleri eta enpresei zuzendua dago.

Jardunaldian **Gauzen Interneta**-ren oinarrizko kontzeptuak azalduko dira eta era berean teknologia honekin erlazionatutako enpresa irtenbideak eskainiko dira. Gauzen Interneta bat-batean gure egunerokoan sartu den fenomeno bat da, ohiko gailuei eta objetuei bizitza emanaz internet bitartez: wearable-ak eskumuturreko, betaurreko, aurikular, eraztun, ordulari eta arropa azkarraren formarekin sortu dira informazio iturri garrantzitsuak bihurtuz. Gailu hauek guztiak eta euren erabiltzaileak beraiei egokitu beharko dira eta horretarako enpresak prestatuak egon beharko dira, enpresentzat eta garatzaileentzat aukera handiak eraikiko baitira teknologia honekin. Ez dago dudarik, teknologia hau gurekin geratzeko etorri dela.

Enpresa asko Gauzen Interneta ezartzea pentsatzen ari dira, horrela iadanik sortuak dauden prozesuak optimizatzeko edo berritzaileak diren negozio berriak sortzeko. Dena den oraindik erronkak geratzen dira, hala nola, segurtasuna eta pribatutasunaren inguruan ematen diren hutsuneak, estandar globalen gabezia eta hazkundearen eritmoa jasan ezin duen azpiegitura.



### **Gipuzkoa Tecnologikoa**

"Gipuzkoa Tecnologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero bi jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, 2.0 Webak, sare sozialak, mugikortasuna, online marketinga...

### **Hizlari aipagarriak**

Aurreikuspenen arabera 200 pertsona baino gehiago bilduko dira Miramongo Parke Tecnologikoan egingo diren hitzaldiak entzutera. Hitzaldiak Gauzen Internetaren gaian adituak direnen esku egongo dira, Javier Sirventen esku esaterako. Javier Sirvent, (Technology Evangelist, Business Development) zientzairen eta teknologia munduaren arteko gauzak lotzen dituen ameslari bat da. Kongresu ezberdinetan hizlaria izan da, Twitterreko sortzailea den George Churchekin eta Apple konpainiaren sortzaileetako bat den Steve Wozniakekin agertokia partekatuz.

Gaur egun Wearables del IoT sistema ezberdinekin ari da lanean, Aseguroak, Banketxeak, Contact Center edota Osasun arloko sektoreetan. Sistema hauek Customer Experience-a objetiboki kuantifikatzeko aukera ematen dute, benetazko emozioak sare soziletan partekatzeko aukera emanaz eta era berean, komunikazio bideak hobetuko dituzten produktuak ikertzeko eta garatzeko aukera emanaz, bezeroak enprekin erlazionatzeko era aldatuz.



**Javier Sirvent**



**Pedro Diezma**

Pedro Diezma (CEO de la empresa de tecnología Zerinta Technologies) adituari buruz berriz, ekintzaile bat dela esan dezakegu, hizlari bat, enpresa estrategietan aditua, ameslaria eta teknologia iraultza berrien bultzatzailea. Hamabost urte baino gehiago daramatza teknologia berrien eta Weareable teknologikoen sektorean softwareak eta aholkularitza garatzen.

Pedro Diezmanek 450 enpresa baino gehiagorentzat garatu ditu proiektuak, 850 talde esanguratsuekin aritu da lanean: General Mills, Telefónica, Endesa, FCC, Airbus, Roger Bosch eta IKEA esaterako, eta "El renacer del héroe" liburua idatzi du bere esperientziak eta ezagutzak jende guztiari hel araziz.



Luis Moreno Arenako Head of Technology & Trends-a. Bere lana Universal McCann eta Zenith Optimediako arlo digitaletan burutu du, teknologia arloko enpresa garrantzietara bideratuta beti, HP, Microsoft edo Telefónica bezalakoetara. Gaur egun, teknologia arloko startupseko scoutingetan dihardu eta baita Arena eta HAVASeko berezoei zerbitzu berria eskaintzeko lanean ere. Azken urtetan, marketin onlinea egokitu daitezkeen azken joeren eta teknologien bila aritu da eta horrez gain hizlari lanak egin ditu marketin onlineko foroetan eta negozio eskola ezberdinen kolaboratzaile izan da.

### Egitaraua

<b>9:00 – 9:15</b>	<b>Hasiera</b>
<b>9:15 – 9:55</b>	<b>Sarrera</b> <b>Unai Bilbao</b> , I+G+i -ren arduraduna (Akting)
<b>9:55 – 10:35</b>	<b>Gauzen Interneta: Helmuga turistiko adimentsuak</b> <b>Carlos Lamsfus</b> , Human Mobility and Technology-ko Zuzendaria (CICtourGUNE)
<b>10:35 – 11:15</b>	<b>Etorkizuneko publizitatea</b> <b>Luis Moreno</b> , Head of Tecnolgy & Trends (Arena)

### KAFERAKO ATSEDENA

<b>11:45 – 12:25</b>	<b>Pertsonen pribatizazioa, eta datu pertsonalen ziurtasuna Internetaren Gauzetan</b> <b>Iñaki Pariente de Prada</b> , Zuzendaria (Agencia Vasca de Protección de Datos)
<b>12:25 – 13:05</b>	<b>Enpresa arloari aplikatutako Wearable Technology-a</b> <b>Pedro Diezma</b> , CEO (Zerintia)
<b>13:05 – 13:45</b>	<b>Zein izango da IoTaren etorkizuna?</b> <b>Javier Sirvent</b> , Technology EvangelisT, Business Development (EmoInsights)

**Laguntzaileak**



**Antolatzaileak**



Gipuzkoako Foru Aldundia



CAMARA DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irene Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347